



Eskualdearen garapen- eredua lantzen

Marko estrategikoa



Ikuspegia



Nolako eskualdea nahi dugu?

Donostia-Beterriko garapen sozioekonomiko jasagarria eta bertako biztanleen ongizatea bermatuko duen eskualdea, zerbitzu eta tresna-sare eragingarriak jarriko dituen pertsona, erakunde eta enpresen esku, eta, gaitasun ezberdinak dituzten eragileak sortzen duten ezagutza kudeatuko duena.

Eskualdeko eragileen arteko harremanak landuz, elkarlanean eta sarean lan egingo duena, eta talde ikuspegi zabal eta estrategikoarekin eskualdean sortzen diren beharrei erantzuteko adi egongo dena. Eskualde dinamikoa, ikasteko eta moldatzeko prest dagoena eta zailtasunei aurre egiteko gaitasuna duena.

Pertsonen gaitasunak eta aukerak handituko dituen, komunitatea subjektu izanik. Eskualde izaera errotua, eta era berean, irekia, besteei laguntzeko eta harrera egiteko prest dagoena, eskuzabala.



Balioak



Zein balio sustatuko dira?

Lurralde jasangarria

Eskualdearen nortasuna eta izaera zaindu eta errespetatzea. Garapen autozentratuan oinarritua, eskualdearen beharrak identifikatu eta asetzera bideratua. Eskualde burujabea izateko, eskualdeko baliabideak erabiltzea.

Elkarlana eta elkartasuna

Sare-ikuspegiarekin lan egitea, gertutasunetik eta talde-ikuspegiarekin, harremanak eta elkarlanerako jarrerak sustatzea. Eskualdeko nahiz eskualdez gaindiko egituren eta herrien artean harreman sendoak eraikitzea.



Balioak



Zein balio sustatuko dira?

Berrikuntza, sormena eta etengabeko hausnarketa

Berrikuntza soziala eta berrikuntza teknologiko garbi eta irekia. Sormena eta malgutasunaren begirada. Estrategien gogoeta, pentsamendu kritikoa, etengabe zer hobetu beharra duena ikusten duena.

Gobernantza- eredua

Parte-hartzea eta gardentasuna, hiru erpinetan oinarrituta: publikoa, pribatua eta komunitarioa. Balioen transmisio eta egiteko moduen garrantziaz jabetzea.



Balioak



Zein balio sustatuko dira?

Giza aurrerapena

Pertsonak eta komunitatea subjektu gisa hartuta, ongizatea parametro sozialetan neurtzea eta horien alde egitea: parekidetasuna, hezkuntza-maila, justizia soziala eta desberdintasunak gutxitzea, parte hartze sozio-politikorako aukerak...

Hizkuntza, kultura eta aniztasuna

Euskararen balio erantsia etengabe elikatzea, eta hizkuntzen kudeaketa lehiakortasunerako gakoa izatea. Bertako ezaugarriak babestea eta kultur dinamikan erreferente izaten jarraitzea. Era berean, beste hizkuntza eta kulturei irekia, elkarbizitza sustatuz eta aniztasuna kudeatuz.



Lerro estrategikoak



ESPARRUA	HELBURU ESTRATEGIKOAK
ENPLEGUA	Lana eskuratzen edo hobetzen laguntzea; horretarako propio sortutako programa edo zerbitzuen bidez.
EKINTZAIETZA	Lurraldeko ekosistema ekintzailean eragitea: dinamizatu, aukerak identifikatu, enpresak garatu, enpresa bizkortu eta finkatzea.
ENPRESA	Lehiakortasunaren hobekuntzan laguntzea, eguneroko kudeaketa, berrikuntza, plangintza, lankidetzaren, nazioartekotzea eta abarren hobekuntza ahalbidetuko duten tresnen bidez.
MERKATARITZAREN sustapena	Merkataritzaren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea eta merkataritzako jarduera sustatzea eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren bidez.
TURISMOAREN sustapena	Turismo-jarduera dinamizatzea, baliabide ekonomikoen, lanaren eta aberastasunaren sortzaile gisa.
SEKTORE BERRI EDOTA ESTRATEGIKOAK	Udalerrri edo eskualdeko sektore berri edota estrategikoak finkatzea, mantentzea edo hazkundera sustatzea.